
ERITXIAK

IZEN PROPIOEN DEKLINAZIOAREN GAINEAN (II)**1. SARTAURREA**

Aurreko artikuluan leku-izen propio mota bat aztertu nuen: entitate bat baino gehiagokoak, hots, multibokoak. Eta erakutsi nuen leku-izen *komunak* legez deklina daitezkeela hain inguramen jakinetan. Behartxo honetan ere toponimoak ikertuko ditut, hurrengo toponimo mota biak egin ere:

1. *Unibokoak* (entitate bakarrekokoak)
2. *Multibokoak* (entitate bat baino gehiagokoak)

Eta leku-izen propio uniboko eta multibokoetan halako kondizio jakina -azterbidean aipatuko dudana berau- betetzen dutenak baino besterik ez ditut izango ikergai.

Artikulu honetan egiaztatu gura nuke aipaturiko leku-izen propio uniboko eta multibokoak bizidunak legez ere deklina daitezkeen ustea eta horretarako lanaren iker-esparrua leku-denbora kasuetara murriztuko dut.

Toponimo unibokoetan Lekeitio daukagu bat esateko. Egon ere, bakarra edo bakartzat dago-eta munduan. Multibokoetan Durango dago, esate batera. Egon ere, hiru daude munduan, dakikegunez.

Gorago esan dudanez, mota bateko zein besteko toponimoak bizidunak legez deklina daitezke. Baina unibokoak izen propio *bizidunak* bezala:

Propio bizidun aldetiko deklinabidea

(1) Mugagabe: Lekeitio**RENGAN**, Lekeitio**RENGANDIK**,...

Multibokoak, ostera, izen propio bizidunak ezezen izen *komun* bizidunak legez ere deklina daitezke. Eta hondarreko gisa honetan mugatu pluralean eta mugagabeen baino ez dira deklinatzen:

A. *Propio bizidun aldetiko deklinabidea*

(2) Mugagabe: Durango**RENGAN**, Durango**RENGANDIK**,...

B. *Komun bizidun aldetiko deklinabidea*

(3) (a) Mug. plur.: Durango**ENGAN**, Durango**ENGANDIK**,...

(b) Mugagabe: Durango**RENGAN**, Durango**RENGANDIK**,...

Adibideoi so-so eginez, gauza bi ageri dira nabarmen: batetik, berdina dira izen propioak diren aldetik toponimoek hartzen duten deklinabide mugagabea(2) eta komunak diren aldetiko mugagabea(3b), baina formaz soilik eta ez esanguraz, ikerbidean zehar erakutsiko dukedanez; bestetik, ez dute izen komunen mugatu singularreko paradigma hartzen.

Behartxo hau egiteko idatzizko adibideak barik ahozko hutsak erabiliko ditut, baina zabal-edo dabiltzanak hitzun onen ahotan. Artikulu honetan proposaturiko deklinabidea Euskal Herri osoan erabiltzen delakoan nago.

2. AZTERBIDEA

Berton lehenik, leku-izen propioen deklinabidea zertan den erabaki mailan ikusiko dugu. Bigarrenik, zergatik deklinatzen diren toponimo batzuk izen propio bizidunak legez ere, leku-izen propio uniboko zein multiboko batzuk. Hirugarrenik,

zergatik deklinatzen diren toponimo multibokook izen komun bizidunak bezala ere. Eta zergatik mugatu pluralean eta mugagabeen soilik egiten duten.

Badakigu mugagabeen deklinatzen direla leku-izen propioak. Eta honetara egin ere:

(4) DurangoN, DurangoRA, DurangoTIK, DurangoKO,...

Sartaurrean erran dut leku-izen propio mota bi ditudala ikergai artikulua honetan. Toponimo mota hauek unibokoak eta multibokoak dira, alegia, entitate bakarreko eta anitzekoak hurrenez hurren. Baina ez edozein toponimo propio uniboko eta komun, ez. Kondizio bat bete behar dute batak zein besteak: pertsona-multzo esanahia izan behar dute, hots, izen bizidun kolektibo esanahia. Zeren-eta hauek bezalako toponimoek alderdi bi dituzte: leku- eta bizidun-alderdia. Beraz, *bizidun* esangurako toponimo propio uniboko eta multibokoak ditut ikergai.

IKERGAIK:

1. Leku-izen propio uniboko bizidun esangurakoak
2. Leku-izen propio multiboko bizidun esangurakoak

Erreka eta mendiei buruzko toponimo propioak, esaterako, bizigabeak dira normalean eta, beraz, ez ditut ikergai; herri-, hiriburu- eta hiri-izenak, konparazio baterako, bizidun esanahikoak dira eta, hortaz, nire ikergaiak.

Eta esan legez, mota bi ditut ikergai leku-izen propio bizidun esangurakoetan. Batetik, entitate bakarrekoak, unibokoak: Ea, Mendexa, Kortezubi, Lekeitio,...; bestetik, entitate bat baino gehiagokoak, multibokoak: Durango, Goierri, Etxarri, Oleta,...

Toponimo propio bizidun erranahikoek, unibokoek zein multibokoek, diren lakoak direlako, hots, bizidun esangura ere dutelako, hartzen dute bizidunen deklinabidea. Horra deklinabide aldaketaren gehiagoko bako frogatzen.

Iker-esparrua leku-denbora kasuetara mugatuko dut, aitzineko artikuluan legez.

Azterbidetan barrena Lekeitio eta Durango toponimoak erabiliko ditut hurrenez hurren unibokoan eta multibokokoan ereduzat. Batak nahiz besteak, unibokoak zein multibokoak, biak, izen propio bizidunak legez deklina daitezke, izen kolektibo bizidunen esangura dute-eta. Hona, barbarako, adibide batzuk edonoren ulergarri:

Leku-izen propio uniboko eta multibokoak

(6) Lekeitiarrok Lekeitio**RENGANAKO** mira handiegia ei dugu

Bizkaitarrok Lekeitio**RENGAN** uste osoa daukagu

Inguruko herriek Durango**RENGANA** jo dute diru-eske

Euskaldunok Durango**RENGANDIK** gauza onak espero ditugu

Goiko esaldion bidez argi eta garbi dago bizigabe ezeze *bizidun* ere deklina daitezkeela toponimo uniboko eta multibokoak.

Toponimo multibokoak, bestalde, izen *komun* bizidunak legez ere deklina daitezke. Eta izen propioak nolatan erabiltzen diren komunak legez, horren berri aitzineko artikuluan (Karmel 1996-1) eman nuen:

Euskaltzaindiaren eskemaren arabera izen komun batzuk zenbatu egiten dira, eta beste batzuk neurtu (eta badira, jakina, zenbatu eta neurtu, biak, egiten direnak ere). Izen propioak, osterá, ez zenbatu, ez neurtu.

Izen moton ezaugarriak kontutan hartuta, laburbilduz erran dezakegu izen propio bat zenbatzen (edo neurtzen) dugunean edota eranstean diogunean zenbatzaile edo determinatzaile zehaztugaberen bat, orduantxe baliatzen dugula izen komun. (76 orr.)

(...)

Eta artikulu berean aipatzen nuen zelako diskursoetan betetzen ziren izen propioak komunak bezala erabiltzeko kondizioak:

Izen propio bereko entitate asko egon daitezke, baina bakarra badago darabilgun diskursoan izen propio erabiliko dugu beti. Ostera, diskursoan entitate bat baino gehiago egon eta guk ikuspegi kontagarrion erabili gura izanez gero entitateok, orduan izen propiook izen komun erabiltzen ditugu, zeren eta bigarren apartaduan esandako moduan izen propioak ezin baitaitezke kontu. Horretarako, alegia, entitateak kontatu, zenbatu nahi baditugu, izen propioak izen komun baliatu behar, gurataez. Horra, beraz, noiz-zelan izen komun erabiltzen diren izen propioak. (78 orr.)

Baina toponimo multibokook mugatu pluralean eta mugagabeen soilik deklina daitezke izen komun bizidunak legez.

Eta horretarako testuinguru egokia erabili behar dugu. Eta zer hoberik aitzineko artikuluan erabiliriko berbera baino, hots, munduan hiru Durango dagoenkoa baino? Ez dut uste inguramen horretan afera handirik dagoenik hurrengo adibide mugatu plural eta mugagabeak aditzeko, entelegatzeko:

Mugatu plural

(7) Ameriketako bi Durango**ENGANA** jo du Ardanzak telebistaz

Ameriketako bi Durango**ENGAN** zer miresten duzu gehien?

Mugagabe

(8) Zenbat Durango**RENGANA** jo duzue diru eske?

Zein Durango**RENGANAKO** txera duzu handiena?

Baina kontestu berean ez daukate deklinatzerik singularrean

(9) *Durango**ARENGANA** jo dute diru-eske

*Durango**AGANAKO** txera handia ageri dute durangarrek

Izan ere referente bakarra dutela komun bizidunak legez barik propio bizidunak bezala deklinatzen baitira:

(10)Durango**RENGANA** jo dute diru-eske

Durango**GANAKO** txera handia ageri dute durangarrek

Toponimo multibokoak aztertu ditugularik behingoan kargutzen gara berdin deklinatzen direla propio bizidunen aldetiko mugagabea(7) eta komun bizidunen aldetiko mugagabea(9). Baina itzelezko alde dago esanguran bata eta bestearen artean: propio bizidunak diren aldetik toponimo multibokoak bakarrak daude diskursoan eta komun bizidunak diren aldetik, ostera, bat baino gehiago. Alegia, diskurso desberdinetan erabiltzen dira deklinabide bata eta bestea.

Bertzalde, leku-izen propio multibokook komunen paradigma hartzen dutelarik mugatu plural hurbilean ere deklina daitezke:

(13)Aipaturiko Durango**ONGANAKO** eskerrona besterik ez daukagu

Errandako Durango**ONGANA** larregitan jo dugu

Lekeitio toponimoa erabili dut leku-izen unibokotzat, baina antzeko milaka daude. Eta herriak ezeze osterantzeko toponimoak ere bai. Leku-izen multibokoak, ostera, banaka-edo daude, Ameriketako Estatu Batuetan berrehundik gora *Washington* leku-izen ei daude baina.

3. KONKLUSIOA

Nire irudiko, sarturrean esan legez, erakutsi dut leku-izen propio batzuk propio *bizidun* ere deklina daitezkeela, toponimo unibokoak zein multibokoak. Deklinabide aldaketa hau jazotzeko zertzuk kondizio behar diren ere azaldu dut.

Gainera egiaztatu dut propio bizidunak bezala ez ezik *komun* bizidunak legez ere deklinatzen direla toponimo multibokoak. Eta honen zergatien berri ere eman dut. Behin komun bizidunak legez erabiliz gero leku-izen propio multibokook, mugatu pluralean eta mugagabean deklinatzen direla frogatu dut. Eta zergatik ez diren mugatu singularrean deklinatzen ere esplikatu dut.

Hona azterturikoaren laburpen bat:

1. Bizidun *propioen* erabilera: multiboko/unibokoak

Mugagabe Durango**RENGAN**/Lekeitio**RENGAN**
 Durango**RENGANA**/Lekeitio**RENGANA**
 (...)

2. Bizidun *komunen* erabilera: multibokoak

Mugagabe Durango**RENGAN**
 Durango**RENGANA**
 (...)

Mug. pl.(hurbil) Durango**ENGAN**(Durango**ONGAN**)
 Durango**ENGANA**(Durango**ONGANA**)
 (...)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka